

AZAROAK 16
EUSKAL IJITO HERRIAREN EGUNA

16TO E NOVENBRAQO
EUSKADIKO RROMANO THEMESQO DIVES

16 DE NOVIEMBRE
DÍA DEL PUEBLO GITANO VASCO

**"IJIT[🌀]AK BAI,
EUSKALDUNAK ERE
BAI"**

IV. KONTAKIZUN LEHIAKETA
4º CONCURSO DE RELATOS

Nora bidali kontakizuna?
¿Dónde enviar el relato?
educacionamuge.elkartea@gmail.com

Noiz arte?/ ¿Hasta cuándo?
Azaroak 9 de noviembre

Anima zaitez!
¡Anímate!



Lehiaketaren oinarriak

Bases del concurso

Ikasleek hiru kategoriatan parte hartu dezakete:

Lehen hezkuntzako 3., 4. eta 5.mailak

Lehen hezkuntzako 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailak

DBHko 3., 4. mailak, batxillergoa eta LH

Kontakizunen balorazioa hurrengo irizpideen arabera egingo da, arrazakeriaren aurkako ikuspegia eta ikuspegi feminista kontuan hartuz:

- Emakumeen ekarpen soziala modu positiboan ikustaraztea eta, bereziki, emakume ijitoena.
- Euskal Ijito Herriaren hizkuntzen erabilera sustatzea:erromanesa, euskara eta gaztelania.
- Ijito Herriaren historiari hurbilpena egitea.
- Kontakizunen estetika.
- Originaltasuna.
- Koherentzia eta kohesioa.
- Gramatika eta ortografia.
- Egile bakarra kontakizun bakoitzeko.

Kontakizunak paperean zein online formatuan aurkeztu daitezke educacionamuge.elkartea@gmail.com helbidean, azaroaren 9ra arte.



El alumnado podrá participar en 3 categorías:

3º, 4º y 5º de educación Primaria

6º de educación Primaria, 1º y 2º de la ESO

3º y 4º de la ESO, bachiller y FP.

La valoración de los relatos se basará en los siguientes criterios, teniendo en cuenta la perspectiva antirracista y feminista:

- Valorar positivamente el papel de las mujeres gitanas y en especial las aportaciones de las mujeres gitanas.
- Fomentar el uso de las diferentes lenguas del Pueblo Gitano, así como fomentar la cultura y tradiciones del propio Pueblo Gitano Vasco.
- Acercamiento a la historia del Pueblo Gitano Vasco.
- Estética de los relatos.
- Originalidad.
- Coherencia y cohesión.
- Gramática y ortografía.
- Sólo una autora o autor por cada relato.

Los relatos se podrán entregar en papel o en formato online en educacionamuge.elkartea@gmail.com, hasta el 9 de noviembre

ARRAZAKERIARI ALERGIA DIOT

Neguko egun euritsu batean, Basurtoko ospitalean, Claudia izeneko haur bat jaio zen. Nahiz eta egun horretan euri zaparrada ari, senide ugari ospitaletik kanpo zeuden, haurra ezagutzeko eta gurasoak zoriontzeko irrikitan.

Urteak pasa ahala, Claudia nagusitu zen. Oso neska alaia zen. Begi itzelak zituen, barre egiten zuenean txiki-txiki egiten zirenak. Musika entzutea zen gehien gustatzen zitzaiona.

Claudia bere nebeekin batera hazi zen. Bere nebak Julian, Ritxi eta Alex deitzen ziren. Hauek Claudia asko maite zuten, oso ondo zaintzen zuten, parkera joaten ziren eta elkarrekin primeran pasatzen zuten jolasean.


Urteak aurrera egin arren, Claudiak parke horretara joaten jarraitu zuen. Bere nebak nagusiagoak zirenez eta eskolako egiteko gehiago zituztenez, parkera gero eta gutxiago joaten ziren.

Parkean beti haur eta gazte berdinak zeuden: Ari izeneko neska bat eta Oliver eta Sergi izeneko bi anaia bikiak.

Claudia eta Ari oso lagun minak egin ziren baina, Oliverren eta Sergiren jarrerak ez ziren oso egokiak... matoiak ziruditen!

Egun batean, bi mutil hauek neskeei "gezurti" deitzen zieten, beste batean haien gurasoak eta haiek lapurrak zirela esaten zieten, kartzelan egon behar zirela oihukatuz. Anaiek ijitoak fidatzekoak ez zirela eta, kontuz ibili ezean, galtzak lapurtzen dizkizutela pentsatzen zuten.

Momentu horretan Claudiak besoan azkura sentitu zuen. Beste egun batean, horrelakoak berriz entzutean, azkura sorbalda sentitu zuen, hurrengoan oinan, etab.




Denbora pasa ahala, konturatu ziren Claudiak alergia bitxia zuela: ijito izateagatik intsultoak jasotzen zituen bakoitzean, azkura sentitzen zuen bere gorputz osoan. Medikuek ez zeukaten informazio askorik alergia honen inguruan, Claudiaren kasua lehenengoa izan baitzen. Hau guztia zela eta, adituek telebistan Claudiari gertatutakoari buruz hitz egin zuten.



Aurora izeneko injineru genetikoa ikasten ari zen neska gazte batek Claudiari zer gertatzen zitzaion entzutean, Valentziatik bidaitu zuen Euskal Herriraino, laguntzeko asmoz: ikerketa ezberdinak egin zituen eta Claudiari froga mediku ezberdinak egin zizkion.

Aurorari esker deskubritu zen ijitoen gorputzek arrazakeriaren aurrean azkura sentitzen zutela. Hala ere, Aurorak ez zuen gaixotasun honi aurre egiteko txertorik asmatu nahi. Horren ordez, munduari hurrengoaz azaldu zion: gaixotasun honi aurre egiteko, arrazakeriarekin amaitu behar dugu, berdintasuna lortzeko borrokatu beharra daukagu eta bakoitzak den modukoa errespetatu.



Amuge
EUSKADIKO EMAKUME IJITOEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUJERES GITANAS DE EUSKADI